

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

**LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA**

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak eta Gipuzkoak estrategia bateratu bat definituko dute Aralarko mendilerroko animalien osasunerako

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Nafarroako Gobernuak lehen sektorean eta landa-garapenean partekatu ditzaketen proiektuak aztertu zituzten atzo, Donostian

Sábado, 27 de febrero de 2016

Nafarroako Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilari Isabel Elizalde eta Gipuzkoako Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka diputatu Ainhoa Aizpuru bildu ziren atzo, ostirala, Donostian, Foru Aldundiaren jauregian. Haren helburua bi erakundeen artean estreinako lan-bilera bat egitea zen, eta bi lurraldeetako lehen sektoreko eta landa-eremuko baldintzak hobetzea bilatzen duten proiektu bateratuak aztertzea.



Bilkurako parte-hartzaileak.

Elizalde eta Aizpuru bat etorri ziren "Gipuzkoa eta Nafarroako landa-eremu askoren izaera eta arazoa bertsua dela" adieraztean, "partekatzen edo bi lurraldeen artean mugakide diren erabilera publikoko mendiak bereziki; beraz, bien arteko lankidetzaz ezinbestekoa da". Gainera, araudi nahiz funtzionamendu komunak dituzten lehen sektoreko jarduerak jorratu ziren, esaterako: Idiazabal Jatorri Deitura edo Lekunberriko Institutu Laktologikoa, bi kasu aipatzeagatik.

Bileran bi lurraldeek partekatzen edo mugakide diren erabilera publikoko mendietako abeltzaintzako jardueren kudeaketa aztertu zen, batez ere: Aiako Harriak, Leitzarain, eta Aralar nahiz Aizkorriko mendilerroak. Agerian geratu zen alor horretan animalien osasuna dela garrantzizkoena; izan ere, ez du askorako balio ustiapen batek neurri zorrotzak hartzea uda-garaian beste animali batzuekin elkartzeko eta elkar kutsatzeko arriskua badago. Nafarroako Gobernuak eta Gipuzkoako Aldundiak lantalde bat osatzeko erabakia hartu zuten, Aralarko mendilerroko osasun-estrategia bat abian jartzeko asmoz.

Erabilera publikoko mendiei lotutako beste gai bat ere aztertu zen: Mendiko Gazta izeneko proiektua. Idiazabal jatorri-deituran sartutako artzaintzako ekimen bat da, eta gazta mendiko txaboletan egiten dute. Proiektua duela zortzi bat urte hasi zen. Gaur egun, Mendiko Gazta egiten duten artzainak Aralarren eta Aizkorri daude, baina abeltzain nafarrek

ere gaiarekiko interesa agertu dute. Arrazoi hori dela eta, Gipuzkoako Aldundiak eta Nafarroako Gobernuak orain arte egindako kudeaketei buruzko informazioa partekatu zuten eta ekimen berri bateratuak sustatzea erabaki.

Azkenik, Pirinioetako arrazako behi-aziendaren gaia ere jorratu zen. Gaur egun, hobekuntza genetiko Sabaizan (Nafarroa) nahiz Aiako Testatze Zentroan (Gipuzkoa) egiten da, eta biak ala biak osagarriak izan daitezkeenez, ondorengoa erabaki zen: haietako bakoitza lerro genetiko ezberdina sustatzera bideratu dadila.